

Urradura



**LAURA PENAGOS
ANTZETZLEA**

Amildegi historikoetan erori: giza-tasunaren galera, ukuiluak, enkan-teak, bortxaketak, torturak, bahi-
ketak, hildakoak, desagertuak, zaharren
begi irekietan isuritako lokatza, osotasun
hondatua, etxea izan zena, norberaren
kultura ukatzea, miseria, gosea, espiri-
tuak suminean, urrea, azukrea, su-armak,
inperioen jaiotza, Ilustrazioa, Entziklo-
pedismoa, petrolioa, sistema ekonomiko
europarra, zapaldu eta merkantzia gisa
ustiatzen dituen, hondamendi demo-
grafikoa, krimen historikoa... eta neure
buruari galdetu diot: "Nori interesatzen
zaio hau guztia?".

Hil zirenak ez ziren hemengoak, ez zen
hemengo odola, ez zen hemengo kultu-
ra, bestela, beste bat izango zen kontua,
segur aski. Zenbat mutilek eta gizonak
utzi zuten Euskal Herria ez bizirauteko
edo hobeki bizitzeko, aberasteko baizik?
Handinahi horrek itsutu zituen, eta haien
ibilbidea ez zen hemen Euskal Herrian
kontatzen den modukoa izan. Nork sinets
dezake? Gaur egun, norbaitek esango du
hau guztia gairitu behar dela, mendeak
pasatu direla, eta hori esatea egokia izan-
go litzakete errealitatea bestelakoa balitz.

Orain dela gutxi, Bigarren Hezkun-
tzako Ikastetxe batek Pedro Ursua zuen
izena. Nor izan zen Pedro Ursua? Kul-
tura-zentro batean, Andres Madariaga

Amatianoren hilobi bat dago. Nor izan
zen Andres Madariaga Amatiano? Nor
izan zen Lope Agirre? Eta abar.

Ez al da kolonizazioa esplotazioa eta
genozidioa legitimatzeko modu bat? Ez
al da krimena eta injustizia legitimatze-
ko modua? Zer egin da mendekotasun
mende horietan guztietan? Nola sortu
existentzia berri bat? Nola askatu lu-
rraldetik gure pentsamendua, gure gor-
putza? Nola mobilizatu kontzientzia ko-
lektiboa hemen egonik? Posible al da
zapalkuntza sentitzeari uztea? Zenbat
mendetako aurreiritziak gairitu behar
ditugu?

Galtzaileen herria gara, birrindutako
herria. Esklabotzak gure historia gelditu
eta zatitu zuen, erlojua gelditu zuen.
Gurean geunden, munduaz dugun ikus-
keran, geure kultura garatuz, gure his-
toria idatziz, eta beste mundu-sistema
ekonomiko batek apurtu, desartikulatu
eta salerosgai bihurtu gintuen.

Badakigu, errepikatuko da. Iritsi da
egun hori? Errepikatu egingo da, kaosak
eta ordenak gobernatuko dute. Batak
bestea izendatzen jakingo ez dugun aroa
iritsiko da, haren izena pixkanaka eza-
batuko da gure oroimenetik, eta gero
guztiz desagertuko da. Giza garapenak
menderatzea dakar? Bizitzeko zerbait
suntsitu behar dugu? ●

(In)justizia



**LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA**

Prozesu judizial baten barruan gaude
orain sei bat urte. Auzokideok ume-
dade arazo bat izan genuen fatxada
egin zigun enpresarekin, eta epaitegian
kateatuta gaude. Aste honetan aldatu di-
gute epaiketaren data, seigarrenez, lau-
garren epaileak hartuko duelako auzia.
Erraza izan behar zena, Kafkaren proze-
su bihurtuta sistemaren erruz, eta pan-
demia bat tartean.

Batzuentzat huskeria izango da; baina su-
frituz gero, jakingo lukete antsietatea, amo-
rrua eta tristura eragiten dizkigula egoerak,
bizitzan oztopoak sortzen dituelako, txikiak
baina oztopo. Osasunean ere kalteak.

Justizia motela da esan ohi da. Baina
hain astiro ibilita ez da justizia, me-
sede egiten diolako kalte-egileari, in-
punitate osoz jarrai lezakeelako bere
kontuetan. Eta kaltea jaso dutenak
gero eta okerrago daude. Sufritzaileek
sufritzen jarraitzen dute, eta hurren-
gorako argi dute epaitegietara ez du-
tela joko. Kontzientzia bakoendako,
ostera, fabore, inork konturik hartuko
ez dielako libre sentitzen dira joko zi-
kinean jarduteko.

Abandonua jaso dugu hamarkada erdi
honetan, inori ardura ez diogula sentia-
razi digu (in)justiziak. ●